

ALTZA! PORRU!



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarteak

L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2004ko urria / 14. zenbakia

INPERNUKO POZA. TRIKITIXAREN II. JARDUNALDIAK

Udazkeneko ekitaldien haritik eta "DEBEKUAK" izenburupean, trikitixaren nondik norakoak eta etorkizuna mintzagai dituzten jardunaldiak antolatu ditu Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Antolatzaileen esanetan, bigarren aldiz antolatu diren jardunaldi hauek harrera ona izan dute, nahiz eta aukeran trikitilari eta trikitixa-irakasleen falta handia nabaritu. Egunez eguneko parte-hartzeari erreparatzen badiogu, azken egunean bildu zen jende gehien Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean; berrogeita hamarren bat lagun. Gainerako egunetan hogeita eta hogeita hamar bat laguneren arteko lagun-taldea bildu da. Antolatzaileak, oro har, pozik baldin badaude ere, datozen ekitaldiei begira, trikitilari eta trikitixa-irakasleak erakartzeko bide berriak urratzen gogotik saiatuko direla adierazi dute, hauen presentzia beharrezkotzat jotzen baitute. Bestalde, jardunaldi hauek hausnarketarako bidea ireki dutelakoan daude. Gainerakoan, izen handiko pertsonak parte hartu dute jardunaldi hauetan, eta horien presentzia ere eskertu nahi luke Elkarteak.

Hasierako helburuari eutsiz, eztabaidarako guneak ekarri nahi izan ditu Elkarteak topaketa hauetara. Ildo honetan, sortu diren eztabaida eta hausnarketak mamitsuak gertatu dira. Jardunaldi hauetako material guztia Elkarteako artxiboan dago jasota, audio, argazki zein irudi bidez.

Batetik, XX. mendean zegoen dantzarako giroa aztertzeari egin zaio leku, "Botere dantza" mahai-inguruan. Izan ere, zenbait herritan debekatuta zegoen elkarren arrimuan dantza egitea, eta orduko gizarteari begirada bat eman zioten Amurizak eta Txomin Garmendiak, Amagoia Iban moderatzailearen dokumentazio-lanaren ondotik.

Bestetik, "Irakaskuntza aldakuntza" izenburupean, trikitia irakasteko beharrezko metodologiak eta egungo egoeraz jardun ziren Sabin Bikandi eta Joxan Goikoetxea, Jose Inazio Ansorenak gidaturik. Oinarriko metodologiaren hutsuneaz jardun zuten, nahiz eta metodologia izate hutsa ez dela nahikoa, eta dena ez dela metodologiaren gain utzi behar ere garbi asko adierazi zuten.

Hirugarren mahai-inguruaren baitan, "Abertzaletasuna eta trikitia" izenekoan, trikitixaren egungo egoeraz jardun zuten.

Xabier Mendiguren Elizegi Euskal Herria suspertzeko egindako ahaleginetan trikitiak izan duen lekuaz mintzatu zen. Joseba Tapiak eta Josu Zabalak, berriz, mundu komertzialean trikitixak izan duen beherakada aztertu zuten, eta beherakada horretan nazionalismoak eta abertzaletasunak duten pisuaz jardun ziren.

Trikitixaren hauspoaren oihartzunak deiadar iraunkorra izan dezan, ahalegin polita da gaian murgildu eta sakontzea, eta horretarako zer hoberik trikitixaren munduan bete-betean ari diren lagunaren parte-hartzea edukitzea baino. Datozen ekitaldiei begira, trikitilari eta trikitixa-irakasleen presentzia ziurtatzeko guzti-guztiok egin beharko dugu lan, denon parte-hartzerik gabe, nekez egin baitaiteke aurrera, nola loraldian, hala goibelaldian.

"Dantza debekatuak zuzenean". Laja, Luis Astiasaran eta Joxe Mari Esteibarrek gerraostean helduta dantza egiteko erabilitako erritmoak jo zituzten jardunaldien azken egunean.



"Dantza debekatuak zuzenean". Laja, Luis Astiasaran eta Joxe Mari Esteibarrek gerraostean helduta dantza egiteko erabilitako erritmoak jo zituzten jardunaldien azken egunean.

ALAITZ ETA MAIDER, AGURRAREN ARRASTOAN

Bikote hau hamalau urtez aritu da musikagintzan, eta hiru disko dira beren lanaren fruitu: *Alaitz eta Maider* (1997), *Inshala* (1999) eta *Auskalo* (2002). **1989**an hasi ziren Alaitz Telletxea eta Maider Zabalegi oiartzuarrak trikitixa txapelketetan parte hartu, eta plaza zein afarietan jotzen.



Alaitz eta Maider

Ordutik hona Euskal Herriko zein kanpoko plaza eta erromerietan makina bat saio eskaini du bikote honek, berek berezkoa duten goxotasuna eta indarra tamainan uztartuz. Hainbat urtetan herriz herri ibili ostean, taldea bertan behera uztea erabaki dute, ordea. Hala ere, aurretik Argentina eta Uruguain emango dituzte zenbait kontzertu. Hori dela eta, urriaren bukaera aldera abiatuko dira Hego Amerikara, Argentinan (La Plata) urriaren 22 eta 23an joko baitute, eta Uruguain (Montevideo), urriaren 26an.

ELKARRIZKETA: Alaitz Telletxea

- Noiz eta nola hasi zineten elkarrekin?

Duela 14 urte hasi ginen elkarrekin jotzen, kantu txapelketa bat zela medio. Ikastola berean ikasten genuen, eta 9 neska atera ginen Euskal Herriko kantu txapelketan. Gustura sentitu ginen, eta pixkanaka entseatzen eta jotzen hasi ginen. Lehenengo familiako bazkaritan eta lagun artean, eta konturatzerako herriko festetan, han eta hemen. Horrela 14 urte pasatu diren arte. Orain, berriz, gure ibilbidea agortu egin dela iruditzen zaigu, eta gehiago luzatu gabe uztea erabaki dugu.

- Bat-bateko erabakia izan da edo luzaro pentsatutakoa?

Ez, ez da bat-bateko erabakia izan. Denboraldi batean pentsatzen aritu ondoren egokiena hori dela iruditu zaigu.

- Ibilbide luze honetan gehien gozatu dituzuen uneak? Eta gehien sufritutakoak?

Ibilbide honetan asko gozatu dugu. Gehien gozatutako una esatea zaila iruditzen zait, asko baitira momentu onak. Nik uste dut pribilegiatuak izan garela izan dugun aukera izateagatik. Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo, musika dela eta, jende interesgarri asko ezagutzeko aukera izan dugu, eta hori benetan aberasgarria da. Gainera, guri gustatutakoa jendeari eskaintzeko aukera ere izan dugu. Esker ona ere jaso dugu jende askoren aldetik. Sufritutakoak, berriz... Bueno, lehenengo diskoa atera genuenean, nahiko zaila egin zitzaigun gertatzen ari zitzaigunaz jabetzea, dena oso azkar gertatu baitzen. Hala ere, oso oroitzapen onak dauzkatz.

- Trikitixaren mundua nola bizi izan duzue barrutik?

Gu, gehienak bezala, soinu eta panderoarekin hasi ginen, eta garai hartan ez zuen oso onarpen ona trikitixak gure inguruan. Behin Barrikadaren kantu bat jotzeko eskatu ziguten...

Gero urte batzuetara izugarritzko gorakada izan zuen, eta trikitixa alde guztietan entzuteraino iritsi ginen. Onarpen oso ona lortu zuen, baina hori ez zela trikitixa esaten zuenik ere bazen. (Maidarren aitona esaterako).

Orain, berriz, erromeria eta dantza giroa nahiko pattalduta dago. Dena aldatzen ari da, oso azkar, eta, ondorioz, erromeria mundua ere bai. Jendeak nahiago du tabernan egon plazan dantzan baino.

- Orain Uruguai/Argentinara zoazte. Nola hartu izan zaituztete kanpoan?

Kanpora joan izan garenetan oso ondo hartu izan gaituzte beti.

- Aurrerantzean, zer?

Abendura arte jotzen jarraituko dugu. Maider Haur Hezkuntza ikasten ari da, eta nik trikitixa klaseak ematen jarraituko dut momentuz.

- Agurtzeko kontzerturik bai? Noizko?

Abenduan 2 kontzertu egingo ditugu, bat Bizkaian eta bestea Gipuzkoan. Oraindik ez dakigu non eta noiz.

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA KURSAALEN

Lehendik ere iragarri dugunez, **azaroaren 27an**, larunbata, trikitixak beteko du **Kursaalgo ganbera aretoa**, iluntzeko **zortzietatik aurrera**. Hemengo musikariez gain, kanpoko musikariak entzuteko parada izango da, Quebec-etik, Italiatik eta Kantabriatik baitatuz musikari gonbidatuak. Quebecetik Sabin Jacques soinu-jotzaile bikaina, Italiatik gure artean dagoeneko ezaguna den Carlo Rizzo pandero-jotzailea, eta Kantabriatik, berriz, Soltxu eta Miriam, panderoa astintzen ezinhobe aritzen den bikotea. Aurten perkusioari eman nahi zaio garrantzia, eta horregatik, Euskal Herriko musikariei dagokienez, perkusio-tresnak ondo baino hobeto ezagutzen

dituzten lagunak izango dira Jaialdian: Imanol, Mutriku eta Leturia pandero-jotzaileak, Jexux Mugika eta Jexux Telleria, Felix Ilarramendi *Errota*, Juan Ezenarro *Berastegi*, Joxe Makazaga *Ziolar*. Azken hiru hauei lagunduz, Agurtzane Elustondo soinu-jotzaile bikainak parte hartuko du.

Jaialdiaren ondoren **afaria** izango da Jauregi Jatetxean, Hernaniko Galarreta ondoan. Afaltzera joan nahi izanez gero, beraz, Elkartean bertan egin behar da **erreserba**, alde aurretik. Ondoren, txartelak Jaialdiko egunean bertan jaso eta ordainduko dira. Aurten hogeituro euro balio du afaritarako txartelak.

BAZKIDEEI OHARRA

Trikitixa Elkarteko bazkide zarenez gero, gogoan izan, iaz bezalaxe, aurten ere 2004. urteko kuota azaroan pasatuko zaizula.

BIZKAIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN SORRERA

Aurten sortu da Bizkaian Trikitixa Elkarte, **BITE**. Orain arte Araban, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian zeuden elkarteak, eta orain Bizkaiairi tokatu zaio txanda. Aipatutako elkarte hauek, ordea, ez daude Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen gain, erakunde autonomoak baitira. Dena dela, EHTEk, besteak beste, elkarlana bultzatu eta informazioa banatzeko helburuak bere egiten ditu; elkarte hauen guztien arteko harremanaren garrantziaz jabetuta.

AURTENGO EKIMENAK

Bizkaiko Trikitixa Elkartearen lehen ekintza **Bizkaiko Trikitixa Eguna** berreskuratzea izan da. Orain dela hogeita hamar urte egin zitzairen lehen aldiz lurretan antzinako tresna-jotzaileei omenaldia, eta aurten berriro ere berreskuratu egin da ohitura hau. 1974an Serafin Arantzeta *Oromiñori* omenaldia eginez ekin zitzaion, eta oraingoan ere hala ekin zaio, lurretako festen azken egunean. Serafin Arantzeta bera ez ezik, Antonia Arantzeta arreba ere omendu dute.

Bestalde, Serafin *Oromiño* (1900-1976) soinu-jotzaileak eta Antonia pandero-jotzaileak (gerra denboran zendua) disko bat grabatu zuten 1927an, eta aurten lehen omenaldia antolatu zutela 30 urte bete direnean,



disko hau bera berrargitaratzea erabaki dute: **La voz de su amo. Vuelta de erromeria. Jota vasca**. Disko hau aurkitzeko galtzak bete lan izan dute, argitaratu eta berehala gorde egin zutelako, baina azkenean, Juan Zarrabetiaren baserrian topatu dute.

Bizkaiko Trikitixa Elkarteak beste ekimen batzuk ere antolatu ditu aurtengo. Esaterako, **Rakel Pujana** gazteak, besteren artean Euskal Telebistako Hitzetik Hortzera saioan bertso idatziak kantatzen jardun duenak, Bizkaiko hainbat eskolara egingo du bisita, eta **kanturako aholku eta teknikak** irakatsiko ditu gazteenen artean.

Hori gutxi ez balitz, azaroaren azken asteburuan, **Bilbon**, trikitixa izango da protagonista. **Azaroaren 26an**, Donostiako Nazioarteko Jaialdiaren bezperan, **Bilboko Kafe Antzokiak** hainbat trikitilari hartuko ditu, **Trikitixa Jaialdiaren** kariaz. Partaideei dagokienez, Roberto Etxabari eta Kepa Arrizabalagak joko dute batetik, eta Xabi Aburruzagak ere eskainiko du bere saioa. Musikari kanpotarrak ere gonbidatu dira, Donostiako Nazioarteko Jaialdian izango diren berak: Sabin Jacques, Carlo Rizzo, eta Soltxu eta Miriam hain zuzen.

Liburu berri batek ere ikusiko du argia, Bizkaiko Elkartearen eskutik. Xabi Aburruzagak Rufino Arrola soinu-jotzailearen trikitixa-piezak bildu ditu, eta baita Bizkaiko beste trikitilari zenbaitenak ere. Garai bateko pieza hauen partiturek osatzen dute, beraz, paratu berri duen liburua. Esan bezala, Xabi Aburruzagaren bilketa-lan hau **Bizkaiko Elkarteak** argitaratuko du.

SOINUAREN LIBURUTEGIA

Azaroan aurkeztuko da **Epelde, mende baten soinua** liburua. Xabier Gantzarainek idatzi du, eta Donostian ez

ezik, Azkoitian ere egingo da liburu honen aurkezpena, soinu-jotzailearen jaioterrian, hain juxtu.

ETORRIKO DIRA BERRIAK

JOXE KRUZELEGI KATAOLATZA (1921-2004)

Joxe Kruzelegi *Kataolatza* soinu-jotzailea zendu zen irailaren 6an, 82 urte zituela.



Kataolatza eta Juliana Zubizarreta, 2001eko uztailean Arrateko amaren omenez egindako erromerian.

1921ean jaio zen, Elgoibarren, eta Azkarate aspiko Parapan baserrian bizi zen ezkondu zenetik. Kataolatzak erromeriaz erromeria Juliana Zubizarreta pandero-jotzailea izan zuen lagun sarritan, eta batere entseatu gabe joaten

omen ziren erromerietara, ongi moldatzen baitziren.

Trikitixa jotzea gustukoa zuen Kataolatzak, eta bere kasa ikasi zuen tresna hau jotzen. Gainerakoan, aroztegi batean irabazten zuen eguneroko ogia, eta baserriko lanak eginez moldatzen zen. Hamasei urte zituela hasi zen trikitixa jotzen, 25 pezeta balio zuen aitak oparitutako soinuarekin, eta geroztik makina bat erromeria alaitu zituen. 1974an omenaldia egin zioten, Arraten. Omenaldi hura hurbil zela erosi zuen soinu berria Kataolatzak, hogeita bost mila pezetaren truk. Soinua jotzeko grina eta gogoia berezkoak zituen. Egun, ordea, belaunaldi hartako geroz eta trikitilari gutxiago geratzen ari da, pixkanaka-pixkanaka.

Nazioarteko Trikitixa Jaialdian omenaldia jaso gabe

laz Juliana Zubizarreta pandero-jotzailea omendu zuten, eta aurten Kataolatza soinu-jotzailea omentzekoa zen Trikitixa Elkarte, baina heriotzak eraman du omenaldi hau jaso gabe. Trikitixa hainbeste maitatutako pertsonak hori baino gehiago merezi bazuen ere, azken agurra orri hauetatik bidaltzea baino ez zaigu geratzen. Etorriko dira berriak.

HAUSPO ZAHARRAK



1973ko argazkia da honakoa. Azpeitian, trikitilarien omenezko jaian, bildu ziren soinu eta pandero-jotzaile hauek. Goian ezkerretik hasita, Epelde, Auntxa, Bittarte eta Arbe ageri dira, soinua lagun. Behean, berriz, Egurrola, Migel Iturbide eta Joxe Mari Iturbide ikus ditzakegu. Aurtengo egutegia da hau, Nazioarteko Trikitixa Jaialdian eta Durangoko Azokan izango da erosteko aukera, betiko legez.

Argazkia: Pepe Gil Azpeitia

KALEJIRAN

- Zeraingo erromeriek ez dute etenik, eta hemendik urte bukaera bitarte beste hiru geratzen dira oraindik trikitixaren doinuekin gozatua hartu nahi duen edonorentzat. Arratsaldeko seietan, Zeraingo eliza ataria erromeriarako leku apropos bilakatzen da, hilean igande batez. Datozen saioak urriaren 24an, azaroaren 14an eta abenduaren 19an izango dira. Nahi izanez gero, baduzue hankak non nekatua eta hauspoa non berotua; udazken-neguko hozkirriari aurre egiteko. *Zerain dantza zain, zuen zain egongo da.*

- Trikitixa Elkartearen webguneko *Trikitixa Entzun* atal berrian hiru grabazio daude entzuteko moduan, urrian zehar. Batetik, Jexux Zulaika *Beotek* etxean egindako grabazioa. Bestetik, Miel Haranak Primi Erostarberi 1994an egindako elkarrizketa bat. Elkarrizketa honetan pieza zahar eta berriei buruz dihardute. Azkenik, Balentin Aldalur *Zialtzetaren* baltsa ere entzun daiteke.

GALBAHEA

- **Epelde (Argia, 1973-04-08, 527. znb.)**

"Erromeriak ez zitzaizkigun hain nekagarri. Okerrena joan etorria izaten zan. Ordu luzetan, soiñua bizkarrean, bizikletaz eta oiñez, bide aldapatsuan askotan. Horrek nekatzen gintuen. Behin baiño gehiagotan gau osoa erromerian eta bidetan pasata, oherik narrastu gabe joan ohi giñan lanera. Hemen gaudenok horrelakoak ezagutu ditugu. Ez zan txantxetako gauza."

- **Juan Mari Beltran (Berria, 2004-03-21)**

"Garrantzitsuen da ulertzea, gozatzea, emozionatzea eta sortzea. Sortzea alboka batekin, trikitixa batekin, dultzaina batekin... edota saxofoi eta biolin batekin. Adibidez, trikitixak, produkzio alorrean, euskal musikari egin dion ekarpena XX. mendeko gauzarik interesgarrienetakoa dela iruditzen zait. Garrantzitsua da kuantitatiboki eta kualitatiboki, patrimonio ikaragarri bat utzi duelako."

- **Carlo Rizzo (Berria, 2004-06-13)**

"Urrunago iritsi nahi badu, euskal panderoak aurrera egin beharko du, aldatu, berritu. Finean, bide berriak probatu beharko ditu."

AGENDA

URRIA

ALAITZ ETA MAIDER

22 eta 23an, La Platan (Buenos Aires); 26an Montevideon (Uruguai), El Galpón Antzokian.

TRIKIZIO

23an Irunberrin (N), 23.00etan; 30ean Irurtzunen (N), 23.00etan.

TAPIA ETA LETURIA

29an, Salzburgon (Austria); 31n, Parisen, Divan du Monde-n.

ZORABIOK

30ean, Irurtzunen (N), 23.00etan.

AZAROA

TAPIA ETA LETURIA

6an, Bartzelonan, Praça del Rey-n; 10ean, Araman (G), plazan, 21.00etan.

TRIKIZIO

12an, Amasan (G), 23.00etan.